



BANDOA

ELURTEEI BURUZKO GOMENDIOAK

Elurtea iragarri dutenez, bando hau egiteko beharra ikusi dugu.

Bide garrantzitsuetan elurra ez pilatzea eta horiek trafikorako irekita egotea izango da udal zerbitzuen helburu nagusia, lehentasun batzuk ezarrita.

Bizilagunek udalaren ahaleginarekin bat egin behar dute, banan-banaka lagunduz eta elkartasunak gidatuta jokatzuz.

Aurreko guztia dela eta, honako **gomendio** hauek egiten dizkizuet:

- **Ahal den neurrian, ez da norberaren ibilgailua erabili behar;** gidatzerakoan, segurtasun distantzia handitu beharko da. Gogoan izan elurrarekin gutxiago ikusten dela, eta, gelditu behar izanez gero, ez dela komeni bat-batean egitea.
- Bide publikoetan aparkatutako ibilgailuak **garajeetan gordeko** dira, ahal dela.
- **Oinezkoek beti espaloitik ibili beharko dute** eta arreta handiz gurutzatuko dituzte kaleak
- Auzo erkidegoek eta areto zein denden jabeek beren etxeen eta establezimenduen aurreko espaloi zatia **garbitu beharko lukete.**
- Jabeen erkidegoek **arduratu behar dute ibilgailu pribatuen zaindegietako sarbideak garbitzeaz.**
- Ibilgailuentzako pasabideak dituzten enpresa edo bestelako **instalazioen titularrek horiek garbitzeaz arduratu beharko dute**, bai eta beren jabegoen barruan dauden aparkalekuak edo maniobra eremuak garbitzeaz ere.

-Gatza nahi duenak zerbitzu anitzetako udal langileei eskatu, Kale nagusia 34ko udal biltegian daukagu eta (hiltegi zaharra).

Etxarri Aranatz, 13 de enero de 2016
Alcalde: Enekak Maiz Ulaiar

